

DV. 27/1/2009

IRITZIA

SAGARDO-SAGARRA: MEREZI DU?

XABIER MURUAMENDIARAZ SAGAR EKOIZLEA

Azken bolada honetan eta batik bat «txotx»aren gerturatzearekin batera hainbat aldarrikapen entzun-irakurri ditugu aurtengo sagardoa gorai patuz. Ahoa hitzez beteta adierazten da azken hamarkadetakoa sagardo-sagar uztarik onena izan dela, hainbaterainokoa, non sagardozaleek ere ez baitzuten espero.

Uzta oso ona izan den zalantzarik ez dago, bai kantitate nahiz kalitate aldetik, baina adieraz dezakegu ere Gipuzkoako hainbat ohiko ekoizle diren lekuetan uzta ez dela horren ona izan.

Irakurri berri dugu ere, Kalitate Hoberena duten Sagardoak, aurrerantzean, «Garantiazko marka» baten bidez ezberdintzeko aukera izan dezakegula. Bide honek sagardo-ekoizle askoren onespena omen du.

Inongo eztabaidarik sortu nahi gabe, gai honi buruz hainbat adierazpen egin nahi nituzke:

- Ekoizpen handia eta ona izan den arren, -hamar mila bat

tona diote adituek- sagardozaleek ez dute Gipuzkoan ek oiztutako sagar guztia jaso. Lurrean, zakuetan eta arboletan milaka kilo gelditu dira jaso gabe.

- Beste kasu batzuetan, sagardozaleak kanpoko sagarraren prezioan jaso dio sagarra ekoizleari kanpora, Asturias aldera bidaltzeko.

- Kontuan izan behar da, Gipuzkoan izan dugun azken uzta honekin sagardogileek behar izan duten %50a ere ez dela bete.

- Sagarraren urteko prezioa jartzerakoan, hainbat bilera egin eta gehienetan ez da adostasun batera iritsi izan. Hitzez hartutako erabakiak haizeak eramaten ditu.

- Sagardogileak, profesionalak dira eta gehienetan hori dute ogibide bakarra. Ulertzekoa da, beraz, kanpoko sagarra kiloko 0,15 euroan erosteak ala bertakoa 0,24 euroan erosteak urte amaierako ekonomia balantzean zeresan handia duela eta, beraz, normala edo ulertzekoa dela ekoizle

handiak kanpoko eroatera jotzea.

- Hau horrela izan arren, bada hainbat sagardogile txiki, bere irabaziak murriztu arren, sagardoaren %100 bertako sagarrarekin ekoizten duenik.

Honetan kokatzen da galdera: Zenbateraino Gipuzkoako sagar-ekoizleek lanean jarraituko dute alor horretan, gero beraien sagarra baloratuko ez dela, jasoko ez dutela, jakinda?

Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailaren ahaleginak, sagastiak handitu, ekoizleei formazioa eman, landaketa berriak bultzatu, ekoizpenean dauden sagastiei kudeaketa laguntzak eman... Zertararako?

Sagardogintza gora doan ehi-nean, sagardo-sagarraren ekoizpena behera eta oso behera doan susmoa dut. Sagastia zaindu (kimaketak, belar-mozketak, tratamenduak...), bere garaian sagarra eskuz edo kiskaz jaso, sagardogileek jasoko ote duten ala ez bermerik gabe? Jasotzen badute, zein preziotan ordainduko duten jakin gabe?

Galdera hauei norbaitek eman beharko dio erantzuna. Nolabait egituratu beharko dira sagar-ekoizleen eta sagardogileen arteko harremanak beste la dudan jartzen dut hamar urte barru bertako sagarrarekin sagardorik egiteko aukerarik egongo den.